

Ordizian, 2017ko urtarrilaren 09an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Igor Eguren Izagirre
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

Ordiziako EH-BILDU
Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

EAJ/PNVko Jose Ignacio Iturrioz Gotor eta IRABAZIko Carlos Gonzalez Astiz jaunak ere azaldu dira.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2016ko abenduaren 12ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.

- 6.000 €tik beherako fakturak.
- Gaztetxea izandako eraikinean hotela ipintzeko proiektuari buruzko informazioa.
- Eroski eremuko antolamendu proiektua.
- Ordizia Lantzen SAren kudeaketaren esleipena
- 2017ko Aurrekontuen informazioa.
- Kirol Azpiegituren Mahaia
- Fiskaltza Probintzialaren Diligentziak
- MAINSTREAMINGari buruzko aurkezpena.

- 4.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16,40



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.-2016eko abenduaren 12an ohiko deialdian egindako bilkurako akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko abenduaren 12ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 69 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 49.005,45-€

Eguren jn.

Vialinen (zigor espedienteak bideratzen dituen enpresa) fakturei buruz galdetu du eta udaltzaingoaren ekipamenduaren erosketari dagozkion fakturei buruz ere bai. Vialine enpresarekin dagoen kontratuaren kopia bat bidaltzeko eskatu du.

Alkate jn.

Zehaztutako fakturei buruzko informazioa eman dio.

Fakturei oniritzia eman zaie.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

- 6000 €tik beherako fakturak.

68. zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 103.482,92-€

Fakturei oniritzia eman zaie.

.....

- Gaztetxea izandako eraikinean hotela ipintzeko proiektuari buruzko informazioa.

Alkate jn.

Proiektua martxan jartzeko norbanako batek duen interesaren berri eman du.

Eguren jn.

Esan du ideiare berri baduela baina ez duela proiektuari buruzko informaziorik. Informazio gehiago izatea komeni dela uste du.

Alkate jn.

Adierazi du proiektua idatziko lukeen arkitektoa Aseginolaza jauna izango litzakeela, eta bilera bat egin daitekeela horri buruzko informazioa eman dezan.

Dubreuil jn.

Beste behin ere, proiektua interesgarria iruditzen zaiola esan du, bada garaia Ordiziak ostatu bat izan dezan.

.....

- Eroski eremuko antolamendu proiektua.

Alkate jn.

Azaldu du ENDARAREN proiektua ia amaituta dagoela eta laster bilera informatibo bat egingo dela aipatutako proiektua talde politiko guztiei azaltzeko. Bilera asteazken honetan, hilak 11, egitea proposatu du.

.....

- Ordizia Lantzen SAREN kudeaketaren esleipena

Alkate jn.

Sozietatearen kudeaketarako Ordizia Lantzen S.A.ren Lehendakari gisa egindako esleipenaren berri eman du.

Bi aurrekontu eskatu dira eta lana AKRORI esleitu zaio merkeena izateagatik eta kudeaketa integrala eskaintzen duelako eskubide arloko profesional espezializatuak izanda.

Kontratua 18.000 euroz azpikoa da eta gehienez urtebeteko epea duena.

Sozietatearen hurrengo Administrazio Batzordean honen berri emango da.

.....

- 2017 urteko ekitaldiko Aurrekontuaren informazioa.

Alkatea

Jakinarazi du 2017 urterako aurrekontuen zirriborroa prestatuta dagoela dagoeneko, eta talde politiko guztiei urtarilaren 11n bilera informatibo bat egiteko proposamena egin die.

.....

- Kirol Azpiegituren Mahaia

Alkate jn.

Kirol-instalazioetako langile eta erabiltzaileen ekarpenak eta kirol elkartenak ere jaso direla jakinarazi du.

Gonzalez jn.

Proposamena Gobernu Batzordeari era formalean jakinarazteko proposamena egin du, dagokion tokian gauzak argi gera daitezen eta mahaiaren eraketan adostasuna eta kontsentsua lortzeko urratsak eman daitezen.

Mahaiaren eraketa modu honetan egitea proposatzen da:

- Alkatea.
- Kirol Aholku Batzordeko 3 kide.
- Zozketa bidez hautatuak izango diren 4 herritar.
- Kirol teknikaria.
- Majori Kiroldegia SMko Zuzendari Gerentea.
- Alderdi politiko bakoitzeko kide bat, IRABAZIko ordezkari bat barne.

Horrekin batera proposatu da zozketa Idazkariak edo eskuordetzen duen funtzionarioak egitea, eta hori guztia talde politiko guztietako, IRABAZI barne, kide banaren aurrean.

Gonzalez jn.

Adierazi du herritarren artean genero berdintasuna bermatu behar dela eta horietakoren bat 65 urtetik gorakoa izatea, hondakinen mahaian eta mugikortasun mahaian egin zen moduan.

Alkate jaunak bilera deialdia egingo die alderdi politikoei proposamen hau edo bestelakoren bat adosteko.

.....

- Alkate jaunak Gipuzkoako Fiskaltza Probintzian irekitako diligentzien artxibatzeari buruzko informazioa eman du, Goierriko Herrien Ekintzari Udalak egindako ekarpenei buruz aurreko Kontu-hartzailea zen Jose Luis Aramburu Otegik egindako salaketaren inguruan.

.....

- Kristina Altura Berdintasun Teknikariak MAINSTREAMINGen inguruan egindako aurkezpena.

Gaia labur aurkeztu du. Adierazi du egin beharreko lanetarako mahai politiko bat eta mahai tekniko bat osatu behar dela.

Mahai politikoa dagoeneko zehaztua dago kideei dagokienez, baina sail bakoitzeko koordinatzaile edo arduradunek osatu behar luketen mahai teknikoa eratu behar da.

Egindako lan planaren proposamena azaldu du azaletik.

Datorren asteartean, urtarrilak 17, mahai tekniko bat deitu nahi duela jakinarazi du, lan egiten hasteko.

Gobernu Batzordeak informazioa jaso du eta egindako lan proposamenari oniritzia eman dio.

4.- Galde-eskeak.

- Sukia andreak galdetu du ea behin-behineko idazkaria ordezkatzeko tramiterik bideratu den. Azaldu du bere egunean esan ziotela gaur egun kargua betetzen duena, behin-behineko izendapenarekin, postu horretan aldi baterako egongo zela, gutxi gorabehera urtebete.

Alkate jaunak eta idazkariak erantzun diote.

- Sukia andreak esan du GURE ESKU DAGOri 3.000 euroko diru-laguntza onartu zitzaioela baina oraindik ez duela kobratu.

Alkate jaunak esan du horri buruz galdetuko duela.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.